

Jose Antonio Zabala gogoan

JOSE ANTONIO ZABALA (1920-1998)

1998ko abuztiaren 27an, Gipuzkoako RSBAP/EAE-ko Zuzendari Biltzarrak egindako bileran, Jose Antonio Zabala jaunaren heriotzaz bere doluminik sakonena agertu ondoren, bere oroimena goratzeko eta esker-rona adierazteko omenaldi bat egitea erabaki zuen.

Gipuzkoako diruzain leiala izan zen, batetik, eta Biltzarreko partaide bestetik, haren oroimena eta gure hari buruzko eskerronak betirako iraungo du gure artean.

Haren hurbil ibili ginen guztiok ezagutu genituen bere dohain paregabeak, pertsonalak eta espiritualak. Baina halere gogoratu eta goratu nahi genituzke haren giza-balore paregabeak: pertsona bezala tatxarik gabeko jokabidea eta gizon publiko bezala bakezale, iritzi bateragile, pake gizona; gizatasunez, jenerositatez, leialtasunez eta emankizunez betea; izakeraz langile eta sakrifikatua, ontasun eta apaltasunez betea; gizon maitagarria, edozer gauzetarako prest, edonori zerbitzatzeko. Eta guztia jaun handiaren xalotasunez, zuhurtziaz eta sinpletasunik nabarienean egina. Guzti hori izan da Gipuzkoako Zuzendari Batzar honek jaso duen bere eredia, ezagutu zuten beste askok baieztatu izan ahal duten bezala.

Guzti hori gogoan izanik RSBAP/Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak, Omenaldirik mereziena antolatu du, bata Donostiako Aldundian (98-XII-11) eta Bergarako Udaletxean bestea, (98-XII-18), hango seme izateaz gain, alkate ere izan baitzen. Bertako Udaletxea lagun eta Bergarako Orfeoia ere tartean delarik, omenaldi handi bat egin nahi zaio gure elkar-tearekin hainbesteko zerikusia duen Bergaran bertan.

Horrez gain, aurten betetzen dira 50 urte *EGAN* aldizkaria sortu zenetik. Jose Antonio izan zen diruzain, bultzatzaile eta eragile azken urteotan. Horregatik Omenaldi honek, omenaldi bikoitza izan nahi du, eta ongi merezia, bestalde.

Jose Antoniok azken urteetan izan zuen ardura eta zaletasuna batetik, eta urteetan zehar *EGAN* aldizkarian izan dituen zuzendariak eta bultzatzaileak, bestetik, Koldo Mitxelena, Antonio Arrue, Aingeru Irigaray, Juan San Martin, Manuel Agud, Julian Martinez, Iñaki Zumalde, Luis Mari Mujika eta Gillermo Etxeberria, aldizkari honek mende Erdiko ibilbidea du. Gaur egun euskal literaturan ohorezko lekuan jarria dago.

Juan Antonio Garmendia

JOSE ANTONIO ZABALAREN OROIMENEZ

Ez naiz oroitzen noiz, nola ez non ezagutu nuen Jose Antonio Zabala, baina ez zait ahaztuko nola berarekin aurren hitzak egin orduko neure baitan ohartu nintzen gizon argi, zintzo eta on baten aurrean nengoela. Gero, urteetan zehar, pentsamendu hori, zorionez, maiz baieztatu ahal izan nuen adiskidetasunezko gure harreman beroenetan.

Bergaran jaioa, bergarar ospetsua izan zen Joan Antonio Zabala. Bide batez esango dut, bere aurreko batena, Antonio Zabalarena, hain zuzen, dugula Tolosako Jasokundeko Andra Mariaren Elizako parrokiara dagoen neurri handiko margolan bikain eta ederra. Baina berriz esango dut Jose Antonio Zabala bergarar ospetsua izan zela, bera izan baitzen, besteak beste, bertako alkate eta hori dela-eta, nire adiskidearen izaera agerian jartzen duen gertaera baten berri emango dut hemen.

Abuztuko aste egun batean, arratsalde beroa zen eta ni beste tolosar adiskide batekin Aramaiotik itzultzean Bergaran geratu ginen; kaleak huts samar ageri ziren eta herria isil eta bakean zegoen. Gauzak horrela, hala esan nion neure lagunari: "Herri honetako Udaletxean norbait lanean aurkitzen baduk, hori alkatea izango duk". Herriko etxeko atezainari galdetu genion alkate jauna bertan aurkitzen al zen eta haren baietza entzun bezain laster, Jose Antonio Zabala, bertako langela batean agurtzeko aukera izan genuen, mahukutsik eta idazmakina baten aurrean lanean ari zen jo eta ke. Hitzaspertu baten ondoren, hirurok Bergarako kale zahar eta kondairaz bete haietan barrena ibili ginen. Gaur egun, Bergarari, hobeki esateko Jose Antonio Zabalarari, egindako ikustaldi hura oroigarri min bezala bizi dut.

Jose Antonio Zabala legegizona zen, eta horrela argi eta garbi adierazi zigun bere lan-bizitza aberatsean zehar, hain barrenean zeraman Euskal Herriko antzinako gorabeheren hautsa kenduz bereziki, baina beti gizonki eta petralkeriarik gabe, inoren iritzi desberdinak errespetu guztiarekin hartuz eta tratatuz. Horixe baieztatzen dute gutxi edo gehiago partaide

izan zuten elkarte eta instituzio guztiek. Momentu zail eta batere atseginak ez zirenetan Gipuzkoako Biltzar Nagusietakoa izan zen, baina bareneko iritziari muzin egin gabe, bere gizontasunezko jokabidea errespetu handiz begiratzen zioten guztiek, baita berarekin bat etortzen ez zirenek ere.

Kulturazko beste alor batzuetan ere ezagutu nuen Zabala, adiskide maitea. Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearekin harreman estuak izan zituen, horren barruan Izeneko lagun edo *Socio de Número* izan zelarik; itzal handiko gizona baina bere buruari garrantzirik eman gabe, benetako apaltasunaren argia alderdi guztietara distiratu. Elkarte horretan bete-behar askori erantzun zien, diruzain eta abar ere izan zen; Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen *EGAN* izeneko aldizkariaren Erredakzio Batzordeko Administratzaile ere izan zen. *EGAN* aipatu dudanez gero, aipa dezadan, aldizkari horren urrezko ezteiak aurten betetzen direla eta benetan ospatzeko gertakaria dela aitortzera ausartzen naiz.

Jose Antonio Zabalaren idazlanen sorta aberatsetik honako hauek aipatuko ditut: Nazioarteko Eusko Ikaskuntzaren Aldizkarian (*R.I.E.V.*) agertuak: 1989.eko aurrean alean "Gipuzkoa ante la invasión de los convencionales; aptitudes divergentes" eta 1993.ko aurrean alean "Entre el absolutismo y el Convenio de Bergara".

Horiek guztiak horrela, ezin dugu aipatu gabe utzi, Jose Antonio Zabalak ongintzako intsituzioei egindako eskaintza. Benetan kezkatu bizi zen Jose Antonio Zabala ongintzari zegokionez, atsedunik gabeko lan isilean. Espiritu aberatseko gizona zen behin ere ahaztuko ez dugu Jose Antonio Zabala. Goian bego adiskide bihotzekoa!

Juan Garmendia Larrañaga

"In memoriam"

Jose Antonio Zabala Unzurrunzaga (1920-1998)

1988ko uztailearen 3an heldu zitzaigun Jose Antonio Zabalaren heriotzaren albistea. Etsipen eta osotasunez beterik eraman zuen bere gaitasuna. Bazekien okertzen, gehiagotzen ari zela, baina tinko mantendu zen bere zereginetan, familiaren alde, berarengana eske joan zitekeen edozeinen alde lanean. Kristautasun sustrai sendoko gizona zen, aita baten eredu bizia, lagunmina, herriko seme leiala, hainbat maite zuen gure lurralde honetako gizasemeen dohain handienen jabea.

Bergarak baditu bere semeen artean pertsonai garrantzitsu ugari; gaurtik aurrera haien arteko bat gehiago izango da Jose Antonio Zabala.

1920. urtean jaio zen. Aitaren aldetik legegizon tradiziokoa eta amarenetik merkataria. Hain zuzen, bere birraitona, Antonio Leandro de Zabala Bergarako Mindegiko behineko Zuzendari izan zen lehen gudu karlista garaian. Lehen ikaskuntza eta oinarrizko batxilergoa Bergarako Mintegian, Aita Dominikarren ikastetxean egin zituen. Batxilergo Gorena, berriz, Gasteizko Marianisten "Santa Maria" Ikastetxean. 1935/6 ikasturtean Zuzenbideko Prestakuntza eta Lehen ikasturtea burutu zituen Bilboko jesulagundiko Erresidentzia eta Akademian. Deustu itsita zegoenez, Valladoliden egin zituen azterketa frogak. Azken gudu zibilean soldaduska egitera beharturik Teruelen ibili beharra gertatu zitzaion. Gudu amaieran, berriro ere, ikasle libre bezala jarraitu zuen Zuzenbidea ikasten Valladoliden, harik eta 1941. urtean bukatu zuen arte.

Ondoren legegizon bezala hasi zen Gasteizen Emilio Gebara eta Manuel Ibarrondo jaunekin despatxu berean. 1942. urtean eskolakide izandako Juan Ramón Ugalderekin batera Bergaran ireki zuen bere despatxua. Urte batera, legegizon lana alde batera utzi eta enpresaritzari ekin zion, enpresari bezala eredu bihurturik. Rafael Unzurrunzaga osaba lagun, "Tornillos Unzurrunzaga y Zabala, S.A." enpresa sortu zuen, hasean Soraluzen eta 1943an, Bergaran. Hogeita bost urte eman zituen bertan jerente bezala. 1957. urtean beste enpresa bat sortzen du "Metalúrgica Santa Engracia, S.A." izenarekin, bertako Lehendakari eta Kontseilari izanik. 1969. urtean Donostiara etorri zen bertan bizitzera eta beste bazkideekin batera "Maderas Lasa y Lecumberri, S.A." sortu zuen, egoitza Urnietan jarriaz eta bertako Gerente eta Administrazio Kontseiluko Lehendakari izanik.

Jose Antonio Zabala enpresari eredu paregabea izan zen, gure lurraldean aleka ematen den izaki berezi horietakoa, ondasuna sortzeaz gain inguruan, familia askotan aisetasuna eta ongi-izatea sortzen duen horietakoa. Bere ustez enpresen etorkizuna bere espezializazioan oinarritu behar zela uste zuen eta zoriontsu sentitzen zen Bergaran ingurunean baino askoz langabezi gutxiago zegoela ikusten zuenean.

Jose Antonio, esan ditugun gauzez gain, beste ezaugarri askoren jabe zen, bai gizarte ekintzaile, politikari, kultur-sustatzaile eta beste arlo askotan.

Bere izakera dinamiko eta altruista horrek batetik, etxean egokitu zitzaion, Ines, alaba adimen urrikoaren egoerak, bestetik, gisa hartako arazoak zituzten familien antzeko beharrak ikusten zituenez, eta gutxitu hauek arreta berezia merezi zutela uste izanik, Gipuzkoako Atzeratuen aldeko Batzorde, ATZEGIko Zuzendaritzan parte zuzena hartzera bultzarazi zuten. Elkarte hura izan zen arlo honetan fundatutako lehenetarikoa

eta kanpo laguntzarik gabe sortua, uste osoa baitzuen "norberarentzat bakarka jokatuta erremediorik ez zuten arazoak, soluziona zitezkeela elkarrekin jokatzuz gero". Familia hauen arteko lehen harremana 1960. urtean eman zen eta, orobat, urte hartan bertan, abenduko 28an sortu zen Gipuzkoako Atzeratuen Batzordea, "Errugabeko Haurren egunean", "Inozente egunean" hain zuzen. Batzorde honek Carlos Lamfus eta, ondoren, Nikolas Lasarte, Aurrezki Kutxa Munizipaleko zuzendarien oneritzi eta laguntza osoa jaso zuen San Migel Patronatua sortuaz. Horrez gain, Patronatuaren ardurapean zegoen Uli-Azpiko San Pablo Zentrua, "Atzeratu Sakon"ez arduratzen zena. Zentzu osoa zuten Jose Antoniorentzat ebanjelioan esaten zaizkigun hitz hauek: "Gizaseme apal eta txiki-entzat egiten duzuen guztia, Goiko jaunak berari egina bezala hartuko du". Ba ote dago ebanjelioko hitza betetzeko modu hoberik! Ildo horretan bultzatu zituen gero GUREAK Lantoki Babestuak. Gaur egun badira gisa hontako dozena bat tailer Gipuzkoan zehar eta bertan gutxitasuna duten pertsona askok eta askok egiten du lan.

Jose Antoniok Bergara bere jaioterriari zion atxikitasuna mila modutara azaldu zuen arlo sozio-kultural anitzetan parte garrantzitsua hartuaz. 1967ko martxoaren 17an sortu zen Bergarako Kultur Ekintza-*Pro-moción Cultural Bergaresa*, bera fundatzaileen arteko bat izanik. Fundazio ekintza Bergarako Udaletxeko Batzar Aretoan ospatu zen. Fundazio hau, berehala hasi zen sekulako fruituak ematen: Bergarako Lehen Hezkuntzaren egoera tamalgarria hobetu zuen, Irakaskintzako Ikastetxean gela berriak eraikiaz, Azoka, Maestria eskola eta, markak hautsiaz, Guardia Zibilen beheko lokaletan bi eskola graduatu sortu zituen. Batez ere, garrantzi berezia izan zuten Matxiategin eraikitako bi eskola prefabrikatuak. Guzti horren inguruan, eskolarteko garraioa antolatu zuen, euskara ikasteko klaseak zabaldu ziren, alfabetatze kanpainak, eskolei bisitak, gau-eskolak, bekak, hitzaldiak, baliogutxiei laguntzak, eta 1976. urtean ARIZ-ONDO izeneko aldizkariaren bigarren aroko lehen alea inprimatu zuen. Fundazioak sekulako harrera izan zuen Bergaran. Haserako 26 bazkidezik, berehala, pasa zen 900 izatera. Guzti horrez gain ALKARTU-NAI izeneko elkarte bat sortu zuen herri elkarteetako kultura sustatzeko. Ekintza honen zerekin nagusia, Zabala beraren hitzak honera ekarriaz, "komunitateak nabaritzen zuen herri kultura inguruko kezka garatzea zen, organismo ofizialak ere bere betebaharra egitera bultzatuaz eta, ahal izanez gero, elkarrekin beren funtzionamenduan behar zuten diru-laguntza ere eskaintzeko borondatea ager zezatela, eta eraberean hauen irakaskintza maila ere kontrolatuaz. Promozio honek izan zuen arrakastaren oinarria, herri bertatik, azpi-azpitik sortutako mugimendua izatean datza. Gogora dezagun egin daitekeen inbertsiorik onena Kultura

bultzatzeko egiten den inbertsioa dela". Horren ondorioz 45.000 metro karratu erosi ziren Agorrosinen eta promozio hau bera arduratu zen ARANSGUI gormutuen eskolaren instalakuntzaz ; eraberean, udal-piszi-
nen proiektuan hartu zuen parte, Ikastolaren eraikuntzan, horretarako eliza eta honen lokalak baliatuaz eta bere esparrua Elgeta Antzuolara mugatuaz. Guzti honetan aitzindari nagusi izan genuen Jose Antonio Zabala. Bere ustez, kultura da herri bati eman diezaiokegun baliabiderik garrantzitsuena eta beharrezkoa da denak aukera berdinarekin jokatzeko egokiera izatea. Zer modu hoberik bere barruko kristau konbikzioak aurrera eramateko!

Ez zen Jose Antonio Zabalaren kultur kezka agortu Donostiara etorri zenean. Ildo berean jarraituz, Antiguoko Jakintza Ikastolako Batzordean hartu zuen parte; Ibaetan, 1973. urtean inauguratu zen Jose Migel Barandiaran Lizeoko eragilea izan zen. 1975. urtea geroztik Eliz Barrutiko Magisteritza Eskolako Patronatu Batzordeko partaide izan zen. Setien Gotzaiak presiditzen zuen Izurun Fundazioko Lehendakari orde ere izan zen. Bertako kide ohoretsu izan ziren Antonio Eloseggi, Jose Antonio Goiria, Ignacio Barriola, Juan Jose Etxeberria, Jose Ramon Estonba, Francisko Garmendia eta Jose M^a Uzin, denak pertsonai txit ezagunak. Fundazio hau 1977. urtetik lanean ari bazen ere, 1984. urtean sortu zen honako helburuarekin: gizarte eta gizabanako bizitzaren kristautasuna sendotu, Euskal herriko kultur balioei fidelitatea azaldu eta komunitatea balore horietan zerbitzatu.

Bere kultur kezka egonezinak Bergarako UNED patronatuaren Lehendakari izatera eramane zuen.

Jose Antonio Zabala, politikari bezala ere, guztiz onartua izan zen. Bere giza kaliteak, zuhurtziak, orekak, lanerako gogo eta bakezaletasunak, hurbileko edozein miraritzen zuen. Esan daiteke ez dela ohiki ematen hain politikari jator eta hurkoaren zerbitzari hura izan zen bezalakorik. Horrela gogoratzen dute bergarrek ere bere alkate izan zeneko garaia, 1979-1983 urte artea. Alkate zegoela denen adostasuna gustatzen zitzaion, denek elkarrekin ulertzea. Hamaika aldiz ikusi zuten udaletxea abandonatzen goizeko ordu txikitik. Alkate garai hura oso aberasgarritzat jotzen zuen berak, baina eraberean atsegin zitzaion baieztatzea, "ez dela egokia kargu batean betirako bertan itsastea, beste askoren modura". Gipuzkoako Batzar Nagusiko Prokuradorea izan zen 1979-1991 urteetan. Gero alde batera utzi zuen politika.

Ez litzateke akats haundia izango Jose Antonio historialari zela ere esatea. Inor gutxik bezala aztarrikatu eta sakondu zuen Bergara bere herriko historia ezkutua. Bergarako historialaria dei diezaiokegu. Horren

lekuko dira bere lanak: "Idatziak", Udaletxeko artxibategiari eskainia. Bertan honako pertsonaien bizitzak adierazten dira: Aranzadi, Sánchez Toca, Tellaetxe, Eleizalde, Gallastegi, Justo Garate, etab...

Gogora ditzagun, bestalde ARIZ-ONDO eta RIEV aldizkarietan argitaratu eman zituen honako lanak: "Municipios de Antaño", "En torno al día 31 de agosto de 1839", "En torno al Monumento en Commemoración del Convenio de Vergara", "Ceremonial de la Procesión del Día de Corpus del año 1782", "Bergarako Jesus Gurutzetuari", "Juntas Generales en Vergara", "Bergara Cultural-Ultimo tercio del siglo XVIII", "Entre el absolutismo y el Convenio de Bergara", "Justo Gárate, in memoriam" e Investigaciones y estudios realizados en Bergara en el último tercio del siglo XVIII".

Nork eman dezake gehiago!

Bere azken urteak ere, besteen alde lan eginaz iragan zituen Jose Antonio Zabalak. Bere familia, euskara, gure herria. Leño hauen idazleak ere azken garai horretan ezagutu zuen RSBAP/EAE-ko diruzain bezala eta bertan Gipuzkoako Batzordekide bezala. Mugarik gabeko langilea, sotila, leiala, bake-gizona, alderdi positiboa begiratzen zuena. Beti non zerbitzatu, han egongo zen. Eta albokook ongi dakigu zenbat mesede egin zigun. *EGAN* aldizkariak ere zorrik haundiena dio Jose Antoniori. Horren lekuko dira gaur egun aldizkari honen arduradun diren Luis M^a Mujika eta Gillermo Etxeberria.

Jose Antonio burura etortzen zaidan bakoitzean, haren gizatasuna, haren zalduntasuna, Herriaren benetako adiskidea, kristau modelikoa, barkatzen eta bakegilea gogoratzen dut. Langile sutsua, bere ohorea alde-menera uzten zekiena, sotila.

Euskarak ere asko zor dio Jose Antonio Zabalarri. Gaur egungo gizar-teak, ez du astirik hartzen inori bere eskerrona azaltzeko, baina inon guretar bati gure eskerrona agertzekotan, gipuzkoar erraldoi honi azaldu beharko genioke.

Goian Bego, Jose Antonio Adiskide maitagarria.

Jose M^a Urkia Etxabe

AGUR, JOXE ANTONIO: OHORE

Iragarritako heriotza. Izenburu hau sarritan erabili baldin bada ere, inoiz gutxitan oraingoan bezain egoki. Bazekien Joxe Antoniok bere gaitzaren berri, gaitz horren prozesua hurbiletik jarraitu zuen, inork inoiz nere bizian ezagutu ditudanen artean izan duen etsipen eta lasaitasun handienaz. Bazekien bere gaitzaren berri, heriotzaren hurbiltasunaren berri, eta halere, harrigarriro eta gizonkiro, neuk uste ez nezakeen neu-

rrian, eta ez naiz gehiegikerietan ari, onartu eta harekin aurrez-aurre jarri zen, bere bizi luze eta makula gabekoak ematen zion lasaitasun eta gizatasunez.

“Hura zan gizona, hura”, idatzi zuen Txomin Agirrek Garoan. Eta guk ere, harriduraz beterik, esan dugu eta genion gure artean: “hura zen gizona, hura”. Horrelako pertsonen jokabideak heriotza guztiz erlatibizatzen du, gertakari bat gehiago eta ezinbestekotzat hartuaz; gehiago, bizi emankor bati amaiera duin eta zoragarria emanez. Gure munduak, heriotza, sekulako haustura eta ezbehar ikaragarritzat hartzen duen unean, Joxe Antoniok, aurrez-aurre “kaixo” esaten zion, nahi duzunean prest nago, ez naiz zure beldur, nere zeregina betetzen saiatu naiz. Nere fedearen arabera saria guztiz eskuratua dut.

Nere Joxe Antoniorekiko ezagutza 1992. urtean hasi zen, hain zuzen ere, *EGAN* aldizkaria gure esku jarri zigitenean RSBAP/EAE elkarteok. Neri egokitu zait idazkari lana egitea, eta bera izan zen gure diruzaina, gure xoxak administratzeaz gain, gure mila zeregin, enkargu, bitartekari lan egiten zituenak. Hamaika itzuli egin du berak Donostian zehar gure aldizkari honen inguruan, Administrazioa, Kutxara, Bankura, noranahi. Ez zen gure diruzain huts izan, gure lankide eta kontseilari zuhur izan genuen. Urtez aurrera joanik ere, harrigarria iruditzen zitzaigun haren sasoa eta bizitasuna. Argala gorputzez, urteak bizkarra apur bat erortarazi bazioten ere, bera, beti makula gabe jantzia, txukuna, hurbila, sekulako sasoa adierazten zuen gorputzez eta buruz. Hizketako bere modu urduriak buru argi eta bizi bat adierazten zuen. Ni neu ere RSBAP/EAE-n sartu nintzenean, bera eskaini zitzaidan babes-emaile bezala eta berak iseki zigun Elkartearen medaila. Eranskin honetako argazkia da horren testigu.

Geroztik sei urte luze egin genituen elkarrekin, gure aldizkari honen inguruko alde eta kontrako kontuen inguruan, ilusioz eta gogoz beteta, harik eta azken urte aldera, 1997. aldera bere gaisotasunaren berri jakitean, diruzain lan hori uzteko gogoia adierazi zigun arte. Mila aldiz iradoki genion jarraitzeko, eta puska batean egin ere egin zuen aurrera, baina gertakariak hartara behartu zuten gero eta argiago eta garbiago. Eta berak, bere betiko aurrikuspen argiarekin erakutsi zizkigun mila izkutuko gai, garaiz ikasi genitzan eta katea ez zedin eten.

Gaur egun, zorionez, bere testigua esku onetan dagoela uste dut nik eta aldizkari honetako gorabeheren eztabaidan aritzen garenean, haren hurbileko beharra ere sentitzen dugu. Dударik ez, zuzenki ez bada ere, zeharka, bera dagoen lekutik lagunduko digula gure zeregin honetan.

Gillermo Etxeberria